

ABORTU LIBRE ETA DOAKOA

Irabazi dugu

Irailaren 23an heldu zen albistea: Espainiako Gobernuak bertan behera utzi zuen abortuaren lege erreforma. Ondoren, Justizia ministro Alberto Ruiz Gallardónek dimititu egin zuen. Begoña Zabala González abokatuak albistea jakin aurretik idatzi zuen ondoko hausnarketa. Haren ustez, garaipen bakarra ez da aurreproiektua izoztuta geratu izana, mugimendu feministak garaipen bat baino gehiago lortu du borroka horretan. Bestalde, “Irabazi dugu”ren ondoan “Irabazten ari gara” jarri du Zabalak, emakumeen eskubideen borrokan bidea egiteko baitago.

IZENBURUA idazterakoan zalantza ortografikoak izan ditut. Esaldia galdera ikur-aren artean jarriko al dut, ez ote du gobernuak ez-dakit-zer-egin horietako batean aurreproiektua aktibatuko? Ez al litzateke hobe esaldia harridura ikur sendoen artean jartzea, zeren irabazi dugu, “la oxtia”, eta bikaina da hori? Ala baieztapen bat da, besterik gabe, esateko baietz, oraingoa aurrera egin dugula. Bada asko interesatzen zaidan aukera bat, *irabazi* aditzak orainaldi jarraituan jokatzeko duena dela uste dut: irabazten ari gara.

Hurrengo galdera da zer irabazi dugun eta nori ari garen irabazten. Irabazitakoarekin zer egin jakitea ere garrantzitsua da, garaipenak kudeatu gure eskubideen alde hurrengo pausoak ematen jarraitzeko.

Irabazteak esan nahi badu PPK azkenean ez duela aurkeztuko aurreproiektua eta horrela gaudenean gaudela, bada horrek politika aritmetiko hutsa dirudi. (...) Nik uste dut galdera sakonagoa dela, korapilatsua eta ñabardura gehiago ditu. Dagoeneko, aurreproiektua atzera bota ala ez, gauza askotan irabazi dugu.

Kalean **irabazi dugu**. Milioika emakume eta gizonak, aldaera askotakoek, aurreproiektuaren kontra egin dute. Inoiz ez bezala, aurkakotasuna eta gaitzespena sorrarazi ditu. Ikus dezagun nolakoak:



Apirilaren 5ean, milaka lagun bildu ziren Iruñean mugimendu feministak egindako deialdira.

Mugimendu feministak berak (edo mugimenduek) gorputza hartu du, gizendu egin da, giharrak erakutsi ditu ezetz esateko. Eta mugimendu honek bereizgarri berriak ditu, garrantzitsuak, masiboak, erradikalak... Gazteak etortzea eta aspaldiko borrokariari itzultzea batze pozgarria izan da.

Mugimenduak sektore garrantzitsuak elkartzen jakin du eta asmatu du. Beti lehen lerrokoa den osasun arloa funtzio oso garrantzitsua betetzen ari da.

Feminismoaren sektore ofizialista eta liberalenek jendarteko beste sektore batzuekiko lotura interesgarria lortu dute. Erradikala ez izanagatik, kalera atera den jendarte sektorea bil-tzea lortu dute.

Ultraeskuindarrekin eta kontserbadoreekin eztabaidetako lerro lodienetan **irabazi dugu**. Lehenengo aldiz, nik uste dut, “ferminico”ren (*nasciturus* nafarra, entzierroan ateratzeko prest) eskubideez eztabaida

inozoak alboratu direla eta arreta emakumearengan eta bere eskubideengan jarri da, eta batik bat, bere gorputzaren jabetzarengan.

Irabazi dugu, eztabaidaren erdian askatasuna eta erabakitze eskubidea jarri ditugulako: ama izan ala ez; ama izan emakumeek haien kabuz erabakitzen duten baldintzetan; nahi dutenarekin; nahi dutenean; nahi duten

kopurua izateko... Mugimenduari emakumeen eskubideekin, emakume guztien eskubideekin, bat egiten lagundu dio: laguntza bidezko ugalketara jotzea erabakitzen duten lesbianak, bakarrik edo bikotearekin; bikotea duten emakumeak zeinak haurra izatea erabakitzen duten; bikoterik ez dutenak eta bakarrik ama izatea erabakitzen dutenak; emakume immigranteak zeinak jendarte honetako batez bestekoa baino haur gehiago ekartzea erabakitzen duten, nahiz eta batzuek uste ez dagoela modan.

Gutxienez bi urtez landu dugun erronka hau ez da momentuko apustua. Luzerako borroka da, non feministok gure gorputzekiko burujabetza osagaiak definitu ditugun. Horregatik diot borroka honetan **irabazten ari garela**. ■

Begoña Zabala González

Emakume Intemazionalistak eta Abortatzeko eskubidearen aldeko Nafarroako batzarreko kidea